

Inork ez du zalantzan ipintzen EEren zatiketa gaur gauzatuko denik

Biltzar Ttipiak konfidantza kenduko die Añamendiko bost parlamentariei

Gaur Gasteizen bilduko den Biltzar Ttipiak (BT) emango dio hasiera EEren behin-betiko zatiketari. Berrikuntza Demokratikoa sektoreko partaideek «behin-betiko» erabakia hartzeko premia azpimarratu dute eta itxura guztien arabera, erabaki horrek zatiketa baino ezin dezake ekar.

Z.ZAMAKOLA / BILBO

Gaurko Biltzar Ttipia joan zen astearteko Exekutiba bileraren kopia hutsa izango dela dirudi. Orduko hartan Jon Larrinaga idazkari nagusiak edozer eztabaidatu baino lehen aurrebaldintza gisa ipini zuen kargu publikoek alderdiaren aginduak bete edo kargua uztea agintzen zuen erabakia bozkatzea. Horixe izan zen arrazoiak Añamendiko lotutako exekutibakideek dimisioa aurkezteko.

Añamendikoek dagoeneko kaleratu dute ez daudela prest parlamentari kargua Juan Mari Bandres eta Jon Larrinagak zuzentzen duten sektorearen esku —EEren erdia baino gehixeago— lagatzeko eta beraz, Biltzar Ttipiak alderdiaren konfidantza erretiratu die.

EEK Eusko Legebiltzarrean dituen sei parlamentarietatik bost Añamendikoak dira; alderdian, oster, berrikuntzakoak dira nagusi eta Biltzar Ttipian zehazki 48-41 da bakoitzaren boto kopurua.

Herenegun, Añamendi sektoreko militanteek premiazko batzar batean bost parlamentarietara bat egiten duela eman zuten jakitera. Parlamentarietok alderdiaren ia erdia ordezkatzeko duen sektoreari lotua egongo da, beraz.

Añamendiko batek honelaxe definitzen zuen egoera: «latza da alderdiaren erdia zarela jakinda beste erdiak kanpoan zaudela esatea; gu ere EEkoak sentitzen gara».

Biltzar Ttipiaren erabakia Berma Batzordearen aurrean errekurrizko aukera badago ere, ez batzuek ez besteek, ez dute zalantzan ipintzen egoerak ez daukala bueltarik eta zatiketa organikoa izan ez bada ere, zatiketa politikoa gauzatua dagoela. Juan Mari Bandres EEko lehendakariak zatiketa ekiditeko esperantza gutxi daukala aitortu eta «EA bere alderdia baino maiteago» duen jendea dagoela kritikatu zuen, añamendikoei buruz.

Añamendikoek erantzun dute, Estatutuen arabera militantziaren % 25 sinadurak jasoz gero, Biltzar Nagusi Berezia deitzeko eskubidea dutela. «Legalki hala da—berritzaileek berriz—baina ez dituzte jasoko eta gainera ordurako kanpoan egongo dira».

BORROKA, ONDASUNAK, ESKURATZEA EEko bertako partaideek egindako konparaketa eginenez, EEko etorkizun laburra bana-



EEK otsailean egin zuen kongresua Ardanza lehendakariak inauguratu zuen. EFE

tzekotan dagoen bikotearena da: arazo bakarra ondasunak banatzea da. Oraindik ere puntu hori heldu ez bada ere, EAJ hautsi zenean izan zen 'batzokien guda' ezkertokiekin errepika daitekeela ematen du.

Gaur egun EEk dituen ondasun guztiak alderdiaren izenean daude, Berrikuntza Demokratikoa sektoreko iturrien arabera. Halere, adierazpen hau baieztatu gabe dago eta dena dela, segurutzat jo daiteke Añamendikoek nagusi diren tokietan justiziaren aurrean errekurritzea egoitzaren jabetza.

Etorkizun politikoari buruz, añamenditarrek behin eta berriro errepikatu dute euren asmoa «proiektu politiko aurrerakoi berria» egin nahi dutela.

Proiektu horretan EE «beharrezko baina ez nahikoa» dela baieztatzen dute eta beraz EA da proiektu horren beste funtsezko ardatza. Halere, korronte honetakoei «EAekin fusio-natzea baino ez dugula nahi esatea astakeria da», errepikatzen dute; «batez ere abstentzioan ezkututzen den eremuan eragin nahi dugu».

Berrikuntza Demokratikoa edo EEko sektore ofizialekoek, berriz, EE siglekin Eusko Jaurlaritzan segitzeko asmoa erakutsi dute. Zail izango dute, baina, Gobernu berrian eraginik izatea: PSE-PSOE eta EAJren artean (hori bait da Gobernu posiblea) gehiengo nagusia daukate eta EEen geratuko litzatekeen parlamentari bakarrak ezer gutxi erantsiko lioke.

Otsailetik hona datorren zatiketa

■ IV. BILTZAR NAGUSIA

EEren zatiketaren lehen zeinuak otsailean azaleratu ziren. IV Biltzar Nagusia bi joera nagusi kaleratu dira, kopuruz ia parekoak. 'Berrikuntza Demokratikoa', Juan Mari Bandres, Mario Onaindia eta Jon Larrinaga bezalako jendeak zuzentzen duena bata eta 'Añamendi', Kepa Aulestia, Xabier Gurrutxaga edo Martin Auzmendiaren ingurukoa bestea.

Lehenengoan iritzian EEren ezkerreko alderdi izaera indartu eta ideologia ezkertiarra bildu behar da, nazionaltasuna iharduteko eremuak berak erabakitzen duela argudiatuta.

Bigarrenek jarrera 'nazionalistagoa' erakutsi dute, eta PSE-EAJ-HB hirukoitzari alternatiba eskaintzeko indar abertzale aurrerakoiak eratzearen beharra aldarrikatu dute.

'Berrikuntza Demokratikoa' boto gutxiren aldeaz nagusitu da azke-

nean, baina argi geratu da ezberdintasun ideologikoak hainbestekoak ez izanda ere, EE ondo bereizitako bi zatitan banatua dagoela.

■ GOBERNU AKORDIO EZBERDINAK

Gasteizko gobernukideak erabakitzeko orduan, EEko bi sektoreak apustu erabat ezberdinak egin dituzte, IV Biltzar Nagusiko agiritan ere agertzen zen bezala: berritzaileek EAJ eta PSE-PSOEekin osatzea defendatzen duten artean, añamenditarrek EAJ-EA-EE hirukoitz nazionalista gurago dute.

Azkenean, EAJk PSE-PSOEekin negoziaketak hautsi ondoren, EEko bi sektoreak bat datoz EAekin gobernatzearekin.

■ AÑAMENDI KORRONTEAREN ABISUA

Uztailean, hauteskundeetan porrot egin ostean, Añamendik korrote gisa osatzeko asmoa kaleratu du, eta

✓ Militanteen % 25en sinadurak jasoz Biltzar Nagusi Berezia deitzeko asmoa erakutsi du Añamendik.

«EE LEHERTARAZI NAHI DUTE»

Bizkaiko Eus-kadiko Ezker-rako idazkari nagusi den Pello Arrizabalagaren ustez, Añamendik ez du nahi eskatzen duen kongresua, «baizik eta gure alderdia nahastea eta lehertaraztea».

Bandres eta Larrinagaren aldekoa da Arrizabalaga eta, herenegun adierazi zuenez, Añamendiko bost parlamentariak Martin Auzmendi presionatu zuten kontseilari kargua utz zezan. Arrizabalagaren esanetan, «Añamendikoek EE nahi dute ahuldu, bere bazkideek Gasteizko Gobernutik bota dezaten».

Bizkaitarraren iritziz, Añamendik aspaldidanik egin du Eusko Alkartasunaren aldeko apustua eta horregatik dabil EEren heriotza lortu nahian. EAekin bat egin nahi izatea «ironia» da, Arrizabalagaren hitzetan, «Aulestia Espainiako konstituzioari eman zion baieztok borobila ez datorrelako bat EAkoen independentzi aldarrikapenarekin».

Arabako EEk bestalde, Pablo Ruiz de Gordejuela, Añamendiko parlamentariari bere konfidantza kendu diote, eta bere lekua beteteko Piedad Larrañaga proposatu du.

Gipuzkoko Batzar Probintzialak ostegun arratsean egin zuen bileran berriz, Jon Larrinagari leporatu zitzaion «alderdia ehorzteko zuloa» prestatzen dabilela.

gatazka latza sortzen du EE barruan. Berritzaileek IV Kongresuko erabakiak ez onartzea leporatzen diete añamenditarrei.

Xabier Garmendia parlamentari berritzailearen ordezkari Igone Arteagabeitia Añamendiko ipintzen denean, Zuzendaritzak kargua uzteko eskatuko dio, baina honek Aulestia-aren laguntzaz uko egiten dio horri. Kanporaketarako lehenengo mehatxuak ezagutu dira, baina erabakia irailera atzeratu da.

■ GAUR EGUNGO EGOERA

Añamendiko bost parlamentariak EA gobernutik kanporatzea gaitzetsi dute. EEko zuzendaritzak alderdiaren erabakiak onartuko dituztela espreski adierazteko eta karguak alderdiaren eskutan uzteko eskatu dio. Añamenditarrek ez dute erabaki hau onartu eta astearteko exekutiban dimisioa aurkeztu dute. EE organikoak zatitzeko zorian dago.

EMako bi militante gartzelara sartu ditu Baionako epaileak

L.E. / BAIONA

Basusarriko golfaren aurka astearte arratsean EMak obratu ekintzaren ondotik, bi militante gartzelaratu dituzte atzo arratsaldean. Betti Bidart baigorriarra eta Xan Hiriart Urruti, gendarmek atxilotu zituztenak aske utzi zituzten arren, Filipe Larrea makearra eta Christian Agerre itsasuarra Baionako gartzelara eraman zituzten.

Philippe Cavalerie Baionako epailearen aurrera atzo goizean aurkeztu ziren azken biak. Epaileak 'etxe ondasunen apurtzeagatik' gartzelaratzearabaki zuen. Datorren aste hasieran, abokatuen laguntzarekin lehen galdeketa iraganen da. Horren ondotik menturaz askatuak daitezke.

Talde abertzaleen haserre nabari zen bart erabaki horren aurrean. Nekazariak maiz egiten dituzten ekintzak, ondasun asko apurtuz oso bakan baizik gartzelatzeak jarraitzen dituzte. 'Errepresioa euskal mugimendu abertzalearen aurka' aipatzen zen berriro. EMak bere aldetik bart buruzagitzak bilera berezi bat ospatu zuen. Gaur Hazpainen iraganen den 'Iparralde Egunari', EMak antolatzen duenari, gertakari horiek tentsio nabaria emanen diote.

Beste lau salaketa zinpeko goardien erasoen kontra

IRUÑEA

Nafarroako bi autobideen lanak direla eta, kontratatu dituzten zinpeko goardien kontra beste lau salaketa paratu dituzte Iruñean.

Joan zen ostiral gauean, ordu bata aldera, J.J.R.B. gaztea bahitu zuten bi zinpeko goardiak, poliziak zirela esan eta gero. Gazteak aditzera eman duenez, lagun talde batekin zegoen Kale Berrian, Iruñeko alde zaharrean, kotxe bat debekatutako norabidean eta «modu arriskutsuan» pasa zenean. Kotxekoei oihu egitean, bi zinpeko goardia ateratzen ziren eta J.J.R.B. gaztea beraien eraman zuten. Irurtzun aldera joan zuten eta han jipoitu egin zuten. Gazteak ihes egitea lortu zuen eta lau puntu behar izan zituen zinpeko goardiak egingo zauria ixteko.

Salaketa jarri ondoren, Goardia Zibilak bi zinpeko goardiak atxilotu zituen larunbatean eta astelehenean epailearen aurrera eraman zituzten.

Igandean Larraungo hiru biztanleek jasan zituen zinpeko goardien erasoak, herenegun jarri zuten salaketaren arabera.